

Isabel Perez Gazako kazetaria:

“Palestinako botere-guneak emakumeen esku baleude, egoerak hobera egingo luke nabarmen”

Ejean jaioa, Tuteratik gertu dagoen Aragoiko herrian. Kazetaritza ikasketak Madrilan amaitzean Ekialde Hurbilera zuzendu zituen pausoak. Libano, Siria, Jordania... Egipton arabiera eta Iranen persiera ikasi ondoren, 2013an erabaki zuen Gazako Zerrendan bizitzea. Ordutik, sare sozialen bitartez eta Hispan Tv, *El Mundo* edo *ElDiario.es* hedabideetan egiten duen lanari esker, munduko aire zabaleko kartzelarik handienaren ahotsa eta aurpegia da askorentzat. Gazan bizi den Espainiako Estatuko pertsona bakarra da.



Axier Lopez

@axierL

ARGAZKIAK: ISABEL PEREZEK UTZIAK

Zergatik Gaza?

Hemen duzu erruduna (alboan duen Mussa'ab Bashir mutil-laguna seinatuz). Berak ohartarazi zidan ez zela erreza izango. Ni aurretik Egipton bizi izan nintzen eta pentsatu nuen antzekoa izango zela, baina, bistan denez, askoz zailagoa izan da. Israelgo aire armadaren etengabeko jazarpen psikologikoaren eta blokeoaren ondorio gogorrez gain, Gazako gizartea krisian dago egunero bere burua giltzaperatuago ikusten duelako, eta jendeak bere baitan are gehiago itxi eta erlijiora jotzen du.

Zure bikotekidea gazatarra bada ere, ezkutuan heldu zineten Gazara.

Nire atsekaberako, leku itxiak gustuko ez ditudalako, tunel baten bitartez sartu ginen Gazara. Nik uste nuen bidaia hura askoz korapilatsuagoa izango zela, baina azkenean bi minutuko paseo lasaia izan zen. Oso normalizatuta zegoen. Normalizatuegia. Egun tunel gehienak suntsituta daude. Gainera, handik gutxira Egiptoko presidente Mohamed Morsi boteretik kendu zuten eta are txarragoak izan ziren Israelgo blokeoaren ondorioak.

Zer oroitzen duzu zure lehen hilabetei buruz?

Aurreneko erreportaje eta elkarrizketak bereziki gogorak izan ziren jendearen bizimodu prekarioaz jabetu nintzelako, inoiz hiltzen ez den nazioarteko komunitatearen laguntzaren preskizian beti. Eta, maleruski, oraindik mingarriagoa egin zitzaidan beste gauza batez ohartu nintzen: Palestinako bestaldeko politikari palestinarrek ere, Zisjordaniakoek, Gaza albo batera uzten dutela. Horri gehitu behar dizkiozu blokeoaren eguneroko ondorioak: ohiko elektrizitate mozketak, ur edangarriaren eskasia... Adibide bat jartzearen, egin kontu zer den negu gorrian ur zikinek itotako auzoen berri ematera joan, zikinkeriaz lepo itzuli etxera eta ezin dutxa bat hartzea ur berorik ez dagoelako. Halere, ez nuen uste jendeak halako pazientzia izango zuenik horren umiliagarriak diren baldintzak jasateko.

Ba al da normaltasunik edo egunerokotasunik Gazan?

“Gazakoak honezkero ohituta zaudete”, diote batzuek. Gorroto dut aditz hori.

Inor ez da inoiz ohituko duintasunik gabeko bizimodura. Gazatarrek erresilientzia moduko bat garatu dute, baina hori ere higatzen ari da.

Adituek diote 2020an Gazan ezin izango dela gizakirik bizi. Hori egia da. Minbizi kasu ugari daude, emakume pilo bat bularreko minbiziak jota dago medikazio egokia jaso barik, giltzurrunetako hutsegitea ohikoa da umeengan... Gaixotasunetako asko oso lotuta daude azpiegituren eta ur zikinen sarearen gabeziekin. Ur zikinen zati handi bat tratatu gabe isurtzen da itsasora edo laborantza-lurretara. Akuiferoko ura kutsatuta dagoenez, bakteriatu kaltegarriak harrapatzea erraza da. Nik neuk bi hilabete eman ditut antibiotikoekin salmonella tifoideak jota. Odol analisiak egitera joan nintzenean, erizainak barre egin zuen eta zera esan zidan: “Nik ere badut hori, ikasi berarekin bizitzen, ez da ezer gertatzen”. Egun ezinezkoa da Gazako Zerrendan aurkitzea fisikoki guztiz osasuntsua den inor.

“Kamera geldian” egindako genozidioaz hitz egin izan duzu.



Makiavelikoa da. Nire ustez dena aztertuta daukate. 2005ean Israelgo armada Gaza ingurura bildu zen eta orduan pentsatu eta ezarri zuten blokeoa. Arnon Soffer, blokeoa diseinatu zuen geografoak –egun Haifako unibertsitateko irakasleak– zera esan zuen: “Animalia horiek are animaliago bihurtuko ditugu”.

Gerra ere bizi behar izan duzu.

2014ko uztaila zen. Nik ez nuen sekular gerraz informatu. Lagunak eta auzokideak ebakuatuak, bonbardatuko dutena zure etxea edo albokoa izango den beldurrez... horrela lan egitea oso gaitza da. Ezinbestekoa da burua hotz edukitzea.

Ez dira asko zurea bezalako kazetaritza lana egiten duten emakumeak.

Badirudi gaur egun ere hedabideek ez dutela konfiantza handirik emakume kazetariengan. Nahiago dute emakumearen irudia aurkeztu eremu bortitza batean dagoen figura babesgabe edo zaugarri bezala. Ikusle gehiago lortu edo ale gehiago saltzeko trepetara baino ez da.

Birzeiteko (Zisjordania) Unibertsitateko Emakumearen Institutuak egindako ikerketaren arabera, Palestinan sexu eraso ugaltzea estuki lotuta dago Israelen biolentzia handitzearekin eta okupazio politikekin.

Hala da, 2014ko gerraren ostean emakumeen aurkako biolentzia kasuek gora egin zuten, eta gaur egun izugarri handia da horien kopurua. Badira emakumea isilarazten duten familiak edo beren alabak oso gazte ezkonarazten dituztenak. Gazako Zerrenda isolatuta dago, blokeatuta. Zisjordanian ez bezala, Gazara ez da atzerriko pertsonen sartu-irtenik ematen, ezta diasporatik bueltan datozen palestinarrak ere. Gainera, Gaza da munduan langabezia tasarik handiena duen herrialdea, Munduko Bankuaren arabera. Beraz, frustrazio hori nola bideratzen dute gizon askok? Bere emaztea edo seme-alaben aurkako biolentziaren bitartez. Gazako emakumeek bereak eta bi egiten dituzte oso baliabide urriekin beren familia aurrera ateratzeko. Gizonezkoak, aldiz, kafetegian eserita topatuko dituzte shishari zurrupaka. Botere guneak

emakumeen esku baleude, egoerak hobera egingo luke nabarmen. Adibidez, Palestina gaur egun politikoki zatituta dago eta Gazako emakumeak dira astero Kontseilu Legegilearen aurrean mobilizatzen direnak Palestinako indar politikoaren batasunaren alde.

Feminismoa mundu islamiarrean. Ezezagun hori.

Patriarkatu islamiarraren narratibari aurre egiteko Koranaren bestelako irakurketa berriak erabiltzen dituzte feminista islamiarrek. Baina jakina, patriarkatuak ere bere kartak baliatzen ditu. Esaterako, seme bakarra eta bi alaba dituen familietan, oso ohikoa da esfortzu ekonomikoak semearen formakuntzara bideratzea, alabena alboratuz. Liburu baten interpretazioetan oinarritutako patriarkatua borrokatzeko, ezagutza da giltza.

Herriaren opioa futbola bada, zer da erlijioa?

Erljioa pertsona askorentzat opioa izan daiteke, baina erlijioaren irakurketa okerrengatik da. Nire bizitzan ez

dut erlijiorik jarraitzen, baina erlijioa dutenek ikasi eta ondo aztertu behar-ko lukete, beste inoren interpretazioen menpe egon gabe. Hartara, Gazan eta mundu islamiarrean orohar, emakumeen ahalduz handiagoa gertatuko litzateke. Beloa ezinbestean jantzi beharrekoa dela uste duten neska gazteak ezagutu ditut. Zergatiak galdetuta, beren erantzuna da aitak, patriarkak edo familiaren mokhtarrak esandakoa mimetikoki errepikatzea. Neska horiek irakurri, hezi eta ideiak partekatzeak aukera izango balute, egoera oso bes-telakoa izango litzateke. Azken batean, heziketa falta kontrolerako tresna da.

Non hasten da politika eta non amaitu erlijioa?

Anaia Musulmanentzat gauza bera dira. Hamasek bere egin zituen Anaia Musulmanen sinesmenak eta nagusikeria handiz erabiltzen ditu. Egia bakarra berea dela uste dute, berarena egiazko Islama. Ez dago eztabaidatzeko aukerarik. Nagusikeriaz jokatzeko dute beren ildo jarraitzen ez duten musulmanekin eta emakumeekin.

Hamas boterera heldu zen horretarako prest egon gabe. Beren elkarriketak eta prentsaurrekoak ikusiz gero jabetuko zara errealtateaz ematen duten bertsioa oso ahula eta erdipurdikoa dela. Hamasen sortzaileetatik bakarra dago bizirik, Mahmud az-Zahar, honez-keru oso heldua da. Eta Ismail Haniyeh bezalako gazteen interesak 'poltronari' eustea da, Gazako Zerrendaren egoera hobetzea baino. Politikeria da, munduko gainerako txokoetan gertatzen den modukoa.

Fakzio politiko palestinarren konponbidearen ala arazoaren parte dira?

Fakzioak ez dira arazoa, horiek osatzen dituzten pertsonak dira problema. Zonaldea kontrolatu eta indarra irabazi nahi duten estatuen txotxongilo bilakatu dira fakzioak. Israelek ere jarre-ara aktiboa du indar palestinarren arteko ezinikusia sustatzeko. Adibidez, 2014ko gerra abiatu zuten Fatah eta Hamasen artean adostasuna lortu eta bi hilabetera.

Alegia, kasta ez dela Madrilan deskubritu duten zerbait.

Ez, dinosaurio asko dago Palestinan ere bai. Eserlekuetan garbiketa sako-



na egin behar da. Palestinar asko dago politikoki frustratuta, bere burua ordezkatuta ikusten ez duena indar politikoetan. Ezkerrekoak dira, baina ez dakite nondik jo. Herrialde ia guztietan gertatzen den gisan, hemen ere ordezkaritza gabezia dago.

Emadazu zure iritzia Palestinako gataska konpontzeko balizko hiru bideri buruz. Aurrea, borroka armatua.

Gazara sartu nintzenezan uste nuen borroka armatuak Israelgo erasoak ez ugaltzeko baliagarria zela, disuasio-neurri gisa. Baina egun ez dut uste horretarako ere eraginkorra denik, Israelgo gaitasun militarra ikaragarria delako. Borroka armatua gaur egun bake negoziatioak bezain alferrikakoa da. Bake negoziatioak Israelentzat baino ez dira errentagarriak kolonien luzamendua lortzeko, zigorgabetasuna egonkortzeko eta nazioarteko komunitatearen aurrean bere burua zonaldeko indar demokratiko bakartzat aurkezteko.

Bigarrenik, nazioarteko bide diplomatikoa.

Oso engainagarria da. Egundin ez du horretan sinisten, ezta Fatahko jendeak ere. Bi estatuen konponbiderik ez da honezkeru. Ezinezkoa da. Halaber, ez da bideragarria Zisjordaniako palestinarrek Jordaniarekin batera estatu bat sortzea

edo Gazako palestinarren Egiptoko Estatura batzea. Ez da logikoa.

Hirugarrenik, estatu bakar baten sorrera egungo Palestinak eta Israelek osatzen duten lurraldean.

Agian hori izan liteke konponbidea. Ez dakit nola hel gintezkeen hara, baina oso argi daukat nondik hasi behar litzatekeen: Okupazioa, Gazaren aurkako blokeoa eta arrazakeria ezabatzea. Apartheid sistema errotik erazi behar da eta gorrotoari aurre egin herritarren elkarbitzean heziz. Agian, egunen baten indartuko da okupazioaren aurkako Israelgo gizarte mugimendua –palestinarrei itzultzeko eskubidea ere aitortzen diena– eta estatu demokratiko eta laiko batean bizi ahal izango dugu denok. ■

Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



© 943 453 588 · www.sigacus.com